



ZEGAMAKO UDALA

2023KO URTARRILAREN 17AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO URRIAREN 18KO, AZAROAREN 15EKO ETA ABENDUAREN 5EKO BILKUREN AKTAK).

2.- KIROI TXARTELA MUGIMENT PROIEKTUAN PARTE HARTZEA.

3. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO URRIAREN 18KO, AZAROAREN 15EKO ETA ABENDUAREN 5EKO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2022ko urriaren 18ko, azaroaren 15eko eta abenduaren 5eko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- KIROI TXARTELA MUGIMENT PROIEKTUAN PARTE HARTZEA.

Alkateak, "Kirol Txartela Mugiment" proiektua ikusirik, Zegama Udala, honetara atxikitzeko proposamena aurkeztu du.

Kiril Txartela Mugiment, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektu bat da, atxikitako udalerrikin batera.

Honen arabera, udalerri bakoitzeko abonatuak beste udalen kirol instalazioetara sartu



ZEGAMAKO UDALA

ahalko dira, gastu gehigarriak barik, udal bakoitzak ezarritako erabilgarritasunaren arabera.

Zentzu honetan, Alkateak adierazten du, erabilgarri jarriko diren zerbitzuak, gimnasioa, sauna eta rokodromoa izango direla, eta udako igerilekuen zerbitzua, abuztuan, eta ez uztailan, erabilgarri jartzeko azterketa egiten ari dela.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenena.- Adierazitakoaren arabera, Zegamako Udalerria "Kirol Txartela Mugiment" proiektura atxikitzea.

Bigarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

3. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 08/1222 erabakia, abenduaren 22koa, zenbait lanpostuen Egonkortze prozesuko oinarrietan ikusitako akatsen zuzenketari buruzkoa.
- 09/1222 erabakia, abenduaren 22koa, arriskutsua izan daitekeen txakurra edukitzeko baimen administratiboa bideratuz.
- 010/1222 erabakia, abenduaren 23koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 011/1222 erabakia, abenduaren 23koa, lan baimena emateari buruzkoa.
- 012/1222 erabakia, abenduaren 23koa, obra handiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 013/1222 erabakia, abenduaren 26koa, 22 zenbakidun fakturen erlazioa (abendua 2); guztira 135.373,25 euro onartuz.
- 014/1222 erabakia, abenduaren 26koa, Zegamakomendia" 2025.1.zk.dun herri onurako mendiaren "Oazurtze" eta "Elor Haundi" unadetan baso bakanketa bitartez egur ustiaketa espedienteari hasiera emanez.
- 01/0123 erabakia, urtarrilaren 3koa, egurra ateratzeko fidantza jartzeari buruzkoa.
- 02/0123 erabakia, urtarrilaren 4koa, Zegamako Udalaren jabetzako "Zegamakomendia" 2025.1.zk.dun herri onurako mendiaren "Oazurtze" eta "Elor Haundi" unadetan baso bakanketa bitartez egur ustiaketa
- 03/0123 erabakia, urtarrilaren 10ekoa, Udal-Idazkariak lanpostua telelana bidezko modalitatean burutzeko egindako eskaera onartuz.
- 04/0123 erabakia, urtarrilaren 16koa, 23 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila); guztira 64.732,96 euro onartuz.
- 05/0123 erabakia, urtarrilaren 16koa, landa-ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuesteko eskaeraren ondorioz espedientea hasiz.



ZEGAMAKO UDALA

- 06/0123 erabakia, urtarilaren 16koa, landa-ondasun higiezinaren gaineko zergatik salbuesteko eskaera onartuz.
- 07/0123 erabakia, urtarilaren 17koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.
- 08/0123 erabakia, urtarilaren 17koa, lan baimena emateari buruzkoa.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) frontoiko komunean ate batekin herritar batek hartutako kalteaz galdetzen du. Alkateak adierazten du herritarra udalera zuzendu dela honen berri emateko, eta atearen konponketa eta komunaren erabilgarritasuna nola bideratu aztertzen ari dela.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) San Martin 11 etxe ondoko farolaren argi-loturaren egoeraz galdetzen du Alkateak adierazten du elektrikariak ikusi duela. Zentzu horretan, adierazten du horrelako lanak burutzeko jasogailu baten beharra ere ikusten dela.

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.